



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2013/2014 denboraldia

8 ZK.DUN ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2013/2014 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko duten klubak

Alavés D.; Antiguóko K.E.; Athletic C.; Barakaldo C.F.; Beasain S.D.; Cultural Durango S.; Danok Bat C.; Eibar S.D.; Etxezarra Zuria de F. de Vitoria C.D.; Euskalduna Andoaindarra de F. S.D.; Getxo C.D.; Loiola Indautxu C.; Ostadar S.K.T.; Real Sociedad de Fútbol; Romo F.C.; Santutxu F.C.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamar jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 8, 15, 22 eta 29; urriaren 6, 13, 20 eta 27; azaroaren 3, 10, 17 eta 24; abenduaren 1, 8 eta 15.

Bigarren itzulia: abenduaren 22; urtarrilaren 5, 12, 19 eta 26; otsailaren 2, 9, 16 eta 23; martxoaren 9, 16, 23 eta 30; apirilaren 6 eta 13.

Partidak larunbatetara aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezeko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Arbitroak

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

7. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Gorajotze Batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2013ko irailaren 2n.



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General